

2022-10-11ko Alkate Dekretuz onartu da 2023-2026 dirulaguntzen plan estrategikoa onartzea. Honako eduki hau du:

### **“OÑATIKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2026**

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzko izaera du eta, beraz, dirulaguntzak eman nahi dituzten udal guztiek onartu egin behar dute beraien plan estrategikoa, non zehaztu egin beharko diren horren aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak, eta betiere aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betez.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 8. artikulua hori garatu egin da Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduan, 10etik 15era arteko artikuluetan (Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2206 Errege Dekretuaren bidez onartu zen), eta bertan zehazten dira zeintzuk izan behar diren Dirulaguntzen Plan Estrategikoen printzipio zuzentzaileak, eremua eta edukia, eta baita zeini dagokion eskumenez horien onarpena eta jarraipena egitea.

Dirulaguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duten printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina dirulaguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailen igieran.

Eraginkortasuna hobetzeko, araudiak aurreikusten du Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egitea. Plan hori, hasiera batean, hainbat urtetarako izan beharko da, dirulaguntzak sortu aurretik egin beharko da, eta haren jarraipenerako eta etengabeko ebaluaziorako araubide bat zehaztu beharko da.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, berez, programa-izaerako kudeaketa-tresna bat da, eta ez du arau-mailarik. Horrenbestez, planaren birtualitatea Oñatiko Udalaren barne eremuan gelditzen da, eta ez du eragin zuzenik partikularren eremuan; beraz, ez du eskubiderik ez betebeharririk sortzen horiengan. Planaren eraginkortasuna lortzeko baldintza da dirulaguntza lerro ezberdinak martxan jartzea, eta horretarako, beste baldintza batzuen artean, ekitaldi bakoitzean aurrekontuak zer nolako aukerak ematen dituen ikusi behar da.

Horregatik, udal honek onartu egiten du 2023-2026 urteen arteko epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, ondoren doazen artikuluekin.

## I. kapitulua

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. *artikulua.- Eremu subjektiboa eta denborakoa*

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honen barruan daude Oñatiko Udalak bere arlo ezberdinetatik emango dituen dirulaguntzak, eta indarrean egongo da 2023-2026 epealdian.

Oñatiko Udalak dirulaguntzak emango ditu pertsona, elkarte edo entitate pribatuen alde, betiere erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduerak sustatzeko helburuarekin edo tokiko eskumenari dagozkion xede publikoen lorpena sustatzeko asmoz.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeen alde; beraz, horiek ezingo dute inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu plana ez bada bere horretan betetzen.

#### 2. *artikulua.- Izaera juridikoa*

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, berez, programa-izaerako kudeaketa-tresna bat da, eta ez du arau-mailarik. Horrenbestez, planaren birtualitatea Oñatiko Udalaren barne eremuan gelditzen da, eta ez du eragin zuzenik partikularren eremuan.

Plana onartzeak ez du sortzen ez eskubiderik ez betebeharririk Administrazioarengan.

Planaren eraginkortasuna lortzeko baldintza da dirulaguntza lerro ezberdinak martxan jartzea, eta horretarako, beste baldintza batzuen artean, ekitaldi bakoitzean aurrekontuak zer nolako aukerak ematen dituen ikusi beharko da eta, halaber, aurrekontuen egonkortasunaren helburuak bete.

#### 3. *artikulua - Araudi aplikagarria*

Plana indarrean dagoen epealdian zehar, honako arauetara egokituko da Oñatiko Udala dirulaguntzak emateko: Dirulaguntzen Lege Orokorra, Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua, plan hau, aurrekontua gauzatzeko araua, dirulaguntzei dagozkien hitzarmenak eta dirulaguntzetarako urteroko deialdien oinarriak.

#### 4. *artikulua. Eskumena.*

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da; izan ere, plan hori da diruz laguntzeko edo sustatzeko eta kudeaketa ekonomikoko jardueraren plangintza estrategikoko tresna bat, bat etorrhik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22. artikulua xedatutakoarekin.

## 5. *artikulua.- Planaren alderdi estrategikoak*

### 5.1.- Planaren helburua.

Orokorrean, udalak dirulaguntzak ematen jardutearen arrazoia da gure herriko gizarte zibil egituratuaren partaidetza bultzatzea, sustatzea eta indartzea, elkarren interesak biltzen diren udal kudeaketako eremuetan, eta, aukera-berdintasunaren printzipioa babestearen alde, zenbait gizarte-kalteberatasun egoeretan dauden herritarrei dirulaguntzak ematea horien gizarteratzea sustatzeko.

### 5.2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren printzipio orokorrak Plan honen printzipio orokorrak:

1- Publizitatea eta lehiakortasuna, aurrez egindako deialdien bidez. Beraz, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, eta hori guzti hori emakida zuzenaren kalterik egin gabe. Emakida zuzenak, arau aplikagarrian ezarritakoaren arabera, aurrez dagozkion aurrekontu-kontsignazioa izan beharko du.

2.- Objektibitatea fondo publikoak esleitzeko prozesuan.

3.- Herritar guztiak, sektore guztiak eta talde guztiak berdin tratatzea eta bereizketarik ez egitea.

4.- Gardentasuna baliabide publikoak emateko prozesuan, bai ematerakoan, bai emaitzak argitaratzerakoan.

5.- Eraginkortasuna helburuak betetzean, emandako dirulaguntzen jarraipena eta kontrola egiteko prozedura bat ezarrita.

6.- Efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan eta erabiltzerakoan, dirulaguntzak baloratuz eta proiektu efizienteenei esleitzuz.

### 5.3. Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburu orokorrak

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egiterakoan, Oñatiko Udalak tresna bat bereganatu nahi du, batetik dirulaguntzen emate-jardutearen helburuak betetzean eraginkortasun-maila handiagoa lortzeko, eta bestetik gastu publikoa izendatzerakoan ere efizientzia-maila handiagoa lortzeko; eta horretarako, erakunde honek garatzen dituen dirulaguntzen emate-jardunak arrazionalizatu egin behar dira eta, beharko balitz, sinplifikatu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa lantzearekin honako helburu orokor hauek lortu nahi dira:

1 Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua betetzea; izan ere, agindu horren bidez, dirulaguntzak eman aurretik udalak behartuta daude dagokion plan estrategikoa onartzera.

2 Udalak politika publikoak planifikatzeko tresna bat izatea, hain zuzen ere, erabilera publikoaren edo gizarte-interesen eremuan bere eskumeneko alorrekin zerikusia duten jarduerak sustatzeko.

3 Laguntzen eta dirulaguntzen lerro eta programa guztietarako printzipio eta exekuzio-oinarri komunak ezartzea eta normalizatzea.

4 Ikuspegi ekonomiko-finantzario batetik begiratuta, departamentu guztietarako kudeaketa-tresna uniformeagoak ezartzea, dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea ahalbidetuko luketenak.

5 Gardentasuna sustatzea, udalak emandako dirulaguntzen inguruan.

### 5.4.- Jarduera-lerro estrategikoak

Udalaren dirulaguntzen lerroak jasotzen dituen Plan Estrategiko honetan, jarduera-lerro estrategiko hauek jaso dira:

1. lerro estrategikoa: Komunikazio estrategia
2. lerro estrategikoa: Parte-hartzea sustatzea
3. lerro estrategikoa: Garapenerako lankidetzaren estrategia
4. lerro estrategikoa: Gizarte estrategia
5. lerro estrategikoa: Parekidetasun estrategia
6. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena
7. lerro estrategikoa: Kulturaren dinamizazio
8. lerro estrategikoa: Euskararen sustapena

- 9. lerro estrategikoa: Estrategia instituzionala
- 10. lerro estrategikoa: Sustapen ekonomiko eta soziala
- 11. lerro estrategikoa: Turismoaren sustapena
- 12. lerro estrategikoa: Auzoak, Landa-garapena, Ingurumena eta Iraunkortasuna.
- 13. lerro estrategikoa: Hezkuntzaren sustapena
- 14. lerro estrategikoa: Haur eta gazteriaren inguruko estrategia

### **6. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura**

Oñatiko Udalak dirulaguntzak emateko orduan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean jasotako moduan eta irismenaren barruan emango ditu, deialdi publikoaren bidez edo, salbuespenez, zuzeneko emakidaren bidez.

Zuzeneko emakidaren bidez honako dirulaguntza hauek eman ahal izango dira:

1. Aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza izendunak.
2. Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioengatik edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten behar beste justifikatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean emandako dirulaguntzak.
3. Oñatiko Udalari lege-mailako arauen batek ezartzen dionean dirulaguntza bat eman beharra edo horren kopurua.

### **7. artikulua.- Exekuzio-epeak**

Orokorrean, udalek emandako dirulaguntzak urtean exekutatu beharko dira, eta horiek justifikatzeko aldia urte naturala izango da.

Egoerarengatik urtetik gorako exekuzio-epea finkatzea edo dirulaguntzak justifikatzeko aldia aldatzea komeni denean, hori dirulaguntzen oinarrietan edo hitzarmenetan jaso beharko da.

### **8. artikulua.- Finantzazioa**

Plan honetan sartutako laguntza eta dirulaguntza lerroen eraginkor izateko, hau da, gauzatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza da dagokion urteko aurrekontuan kreditu egokia eta behar bestekoa egotea.

Edozein dirulaguntza eman aurretik, dagokion gastu-baimena tramitatu beharko da.

**9.artikulua.- Emandako dirulaguntzak aurrez ordaintzea**

Dirulaguntzen Lege Orokorreko 34. artikulua jasotzen duenez, aurretik ere ordain litezke kantitate batzuk ziurtagiriak aurkeztu baino lehen, dirulaguntzaren helburu diren ekintzak gauzatzeko ezinbesteko finantzabide moduan, eta aukera hori eta berme- erregimena berariaz aurreikusi beharko dira dirulaguntza arautzeko araudian. Beraz, deialdietako oinarrietan eta zuzeneko dirulaguntzetarako egindako hitzarmenetan ordainketak aurrez egiteko aukera ezarri ahal izango da, behar bezala arrazoituta, betiere diruz lagundu beharreko proiektu-motaren finantzazio-beharren arabera edo dirulaguntzaren jasotzaileen arabera edo jarduera publiko guztiak arautu behar dituzten eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera.

**10.artikulua.- Plan estrategikoaren kontrola eta jarraipena: Jarduketa-plana.**

Oñatiko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategiko honen kontrola eta jarraipena urtero egingo da, bi alderditatik: Kontrol ekonomiko-finantzarioa, eta planaren kontrola eta jarraipena.

- Emandako dirulaguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa: Kontuhartzaitzaren ardurapekoa da, eta indarrean dagoen legedian eta Udal Aurrekontua Exekutatzeko Arauan jasotako baldintzetan egingo da.

Horrela, UAGAre 13.art. 6 atalak dioen bezala, dirulaguntzak eman dituen udal departamentu bakoitzak dokumentazioaren lehen errebisioa egiteko ardura izango du, jakiteko ea egokiak diren aurkeztutako agiri justifikatzaileak, memoria teknikoaren azterlana edo ekarritako gainontzeko dokumentazioa. Udal departamentu bakoitzak dokumentazioa aztertu eta egiaztatu ondoren, nahikoa frogagiri ez balego, Kontuhartzaitzari eta Batzorde informatzaileari jakinaraziko dio, eta dirulaguntzaren prozeduran araudiak xedatutako ondorioak izango ditu.

Kontuhartzaitzak konprobatu ahalko du aurkeztutako dokumentazio ekonomikoa egokia dela eta gain-finantzaketarik ez dagoela.

Horren inguruan, Kontuhartzaitzak egoki irizitako konprobaketa eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, betiere bermatuta gera dadin indarrean dagoen dirulaguntzen alorreko legedia behar bezala bete dela.

Kontuhartzaitza Nagusiak eredu batzuk gertatu ahal izango ditu dirulaguntzak justifikatu ahal izateko eta, horrela, dirulaguntzen fiskalizazioa errazteko.

- Planaren kontrola eta jarraipena: dirulaguntzak ematen dituzten arlo bakoitzeko teknikari arduradunak egingo du.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, dirulaguntzak ematen dituzten udal departamentuek txosten arrazoitua eskatuko diete dirulaguntzen

onuradunei. Txostenean jaso egin beharko da zenbat ekintza egin diren, dirulaguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina, eta helburuak lortu direla justifikatu beharko da.

Dirulaguntzen oinarri eta deialdietan adierazi bezala, aurreko urteko dirulaguntzen txosten justifikatzailea aurkeztu beharko diote horren ardura duen batzorde informatzaileari eta, gero, organo erabakitzaileari.

Horrez gain, planaren indarraldia bukatutakoan, teknikari arduradunak txosten bat bidaliko du honako alderdi hauek zehaztuz:

1. Dirulaguntzen lerro eta mota bakoitzari buruzko informazioa. Bertan jasoko dira emandako dirulaguntzak, justifikatutakoak, uko egindakoak eta itzultitakoak (edo itzultzeko bidean daudenak).
2. Helburu zehatzen eta horien lorpen-epearen betetze-maila.
3. Eragin nahi izan den errealitatean izan duen eragina eta ondorioak.
4. Ondorioak edo balorazio orokorra.
5. Dirulaguntzen hurrengo Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

## II. kapitulua

### LERRO ESTRATEGIKOAK

#### 11. *artikulua.*- *Lerro estrategikoen helburuak.*

1. lerro estrategikoa: Komunikazio estrategia

- Helburu estrategikoa: Oñati hedabideak sustatu.
- Helburu zehatzak:

Oñati irratia eta Kontzejupetik aldizkariaren sustapena.

2. lerro estrategikoa: Parte-hartzea sustatzea

- Helburu estrategikoa: Oñatiko eragileek eta herritar orok Udalaren erabakitze-prozeduretan parte-hartzea eta autokudeaketa sustatu
- Helburu zehatzak:

Eragin orokorreko araudian eragileen eta herritarren parte-hartzea sustatu.

Eragileen eta herritarren estrategia autokudeatzailea sustatu

3. lerro estrategikoa: Garapenerako lankidetzak estrategia

— Helburu estrategikoa: Herri txiroenen garapenean lagundu, hemengo herritarren sentiberatasuna areagotzeko eta hangoen bizi-baldintzak hobetzeko ekimenak sustatuz, elkartasunerako eta toki garapenerako proiektuetarako dirulaguntzen bidez.

— Helburu zehatzak:

Lagundu herri guztiek norberak eusteko moduko giza-garapen iraunkorra lortu dezaten ingurumenarekiko errespetuan oinarrituta, eta baliabide endogenoak jarri martxan.

Herriko GKEei lagundu, beraien ekimen eta lankidetzeta-proiektuetan, herri txiroentzako eta garapen bidean daudenentzako ekarpen gisa.

Larrialdi-egoeren aurrean erantzun, laguntza humanitarioaren ekintzen bidez.

Herri txiroenen alde hemengo herritarren sentiberatasuna areagotzeko ekimenak sustatu.

#### 4. lerro estrategikoa: Gizarte-estrategia

— Helburu estrategikoa: Oñatirren bizi-kalitate eta gizarte-ongizate maila orokorrak igo.

Pertsonen, familien eta gizarte-taldeen -batez ere bazterketa-arriskuan badaude- berri izateko, egoerak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko mekanismoak sustatu.

Gizarte-kalteberatasun egoeran dauden herritarrak gizarteratu daitezela sustatu.

Herriko emakumeen eta hirugarren adinekoen elkarteek jarduera parte-hartzaileak, prestakuntzakoak eta ludikoak antola ditzatela sustatu.

Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenak sustatu, eta elkarten eta erakundeen partaidetza eta jarduerak bultzatu, arlo honetako udal eskumenak garatzerakoan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortze aldera.

Baztertutako pertsonak gizarteratu daitezela sustatu.

— Helburu zehatzak:

Gizarte-zerbitzuetako baliabideei buruzko eta horiek eskuratzeko bideei buruzko informazioa eman.

Gizarte-kalteberatasun egoeran daudenen kasuetan, premia oinarrizkoak, espezifikoak eta ezohikoak estali, norbanakoak nahiz familiakoak.

Gizarte-arriskuan edota zailtasun-egoerak txikitzeko edo desagertzeko lan egin.

Arazoak edo zailtasunak agertzea ekidin, arrisku-faktoreak antzemandakoan modu prebentiboan esku hartuz.

Sustatu irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimena, erakundeekin jarduera koordinatua indartzea, eta gizartearen partaidetza aktiboa.



Sustatu udalerriko jubilatuen elkarteak eta emakumeen elkarteak jarduerak egin ditzaten, eta baita gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten duen beste edozein taldek ere.

Sustatu prebentzio-jarduerak egin daitezzen honako alor hauetan: drogamenpekotasuna, berdintasuna, aniztasunaren onarpena...

Baztertutako pertsonak gizarteratu daitezela sustatu.

#### 5. lerro estrategikoa: Parekidetasun estrategia

— Helburu estrategikoa: Oñatin, pertsonen parekidetasuna sustatu eta normalizatu.

— Helburu zehatzak:

Emakumeen etxearen proiektua sustatu, bultzatu eta egonkortu

Parekidetasuneko estrategiak sustatu

#### 6. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena

— Helburu estrategikoa: Kirola egitea sustatu.

— Helburu zehatzak:

Jendeak orokorrean kirola egin dezala sustatu, ohitura osasungarri eta gomendagarria den aldetik.

Elkartegintza sustatu, kirola egiteko antolatze-lanak eta emaitzak hobetzeko modua baita.

Udalerriko kirol elkarteekin elkarlanean aritu, jarduerak egiteko zein kirol-instalazioen sarea hobetzeko.

Kirol elkarteetako oinarrizko kirol federatua sustatu.

Eskola-kirola sustatu, ikastetxe publikoetan nahiz pribatu hitzartuetan. Kirola kalean egitea sustatu.

Kirola egitea sustatzen duten kirol-ekitaldiak garatzen lagundu.

#### 7. lerro estrategikoa: Kultur dinamizazioa

— Helburu estrategikoa: Udalerriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu.

— Helburu zehatzak:

1. Udalerriko kultur egiturari laguntza eman, zabaldu eta sustatu, kultur sorkuntzari laguntzeko ereduak finkatuz.
2. Sorkuntzara, ekoizpenera eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestu, zabaldu eta sustatu.
4. Euskal Herriko eta bereziki Oñatiko historiaren eta kulturaren balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak lagundu, zabaldu eta sustatu.
5. Kultur arloan, herriko elkartegintza sustatu.
6. Udalerriko jaien antolaketa dinamizatu, auzo guztienak barne, eta horietan ekintza herrikoiak antolatu.

#### 8.lerro estrategikoa: Euskararen sustapena

- Helburu estrategikoa: Oñatin, euskararen ezagutza eta erabilera sustatu eta normalizatu.
- Helburu zehatzak:

Adin nagusiko Oñatirrei euskara ikasteko erraztasunak eskaini.

Euskarazko errefortzuak eskaini 16 urtetik beherako ume etorkinei, integrazio handiago lor dezaten herriko bizitza sozialean eta irakaskuntza arautuan -non komunikazio-hizkuntza euskara den-.

Merkataritzan eta enpresetan euskararen erabilera sustatu.

Gazteak aktibatu eta motibatu, euskara arlo guztietan erabil dezaten.

Oñatin euskararen erabilera normalizatzeko udal jarduera zehatzetan lagundu.

Komunikabideetan -idatzizkoetan nahiz ikus-entzunezkoetan- euskararen presentzia normalizatzen lagundu.

Oñatiko euskalkia zaintzen eta zabaltzen lagundu. Euskararen arloan, herriko elkartegintza indartu.

#### 9.lerro estrategikoa: Estrategia instituzionala

- Helburu estrategikoa: Gizartearen bizikidetzaren sustapena.
- Helburu zehatzak:

Era osagarrian eta salbuespenezko kasuetan, interes publikoko programak garatzen lagundu, betiere aurreko leerro estrategikoetan sartu gabe gelditu diren kasuetan, eta,

edonola ere, gizartearen bizikidetzaz edo Memoria Historikoa sustatzen duten irabazi asmorik gabeko entitateen alde.

#### 10. lerro estrategikoa: Sustapen ekonomiko eta soziala

— Helburu estrategikoa: Oñatiko udalerrian garapen ekonomiko iraunkorra eta enplegu-sustapena bultzatu, horrela Oñatir guztien bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetzeko asmoz.

— Helburu zehatzak:

Enplegu-sortzaile izango diren eta baliabideen iraunkortasuna bermatuko duten enpresa-proiektuak hazteko eta sendotzeko laguntza eman.

Kalitatezko enpleguaren sorkuntza sustatu. Udalerrian, ekintzaileen jarduera dinamizatu.

Gertuko merkataritza dinamizatu eta sustatu, hutsik dauden merkataritza-lokalak erabiltzea bultzatu.

Udalerriko enpresa-sarean lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzen lagundu.

#### 11. lerro estrategikoa: Turismoaren sustapena.

— Helburu estrategikoa: Udalerrian turismoa sustatzea.

— Helburu zehatzak:

- Turismoa erakartzeko baliagarriak izan daitezkekeen ekimenak sustatzea.

- Udalerriko jarduera ekonomikoa sustatzea.

- Udalerriko ondare historiko-kulturala balioan jartzea.

#### 12. lerro estrategikoa: Hirigintza eta zerbitzuen estrategia

— Helburu estrategikoa: Udalerrian, hirigintza eta zerbitzuak hobetzeko helburuak lortu, eta baita garapen sostengagarriaren baitan.

— Helburu zehatzak:

- Debagoiena mankomunitatea finantzatu

13. lerro estrategikoa: Auzoak, Landa-garapena, Ingurumena eta Iraunkortasuna.

- Helburu estrategikoa: Udalerrian, ingurumena babesteko eta hobetzeko helburuak lortu, eta baita garapen sostengagarria lortzeko helburuak ere.
- Helburu zehatzak:
  - Udalerriak dituen baliabide naturalen ezagutza zabaldu, eta horien zaintza-premiari buruz kontzientziatu.
  - Udalerriko biodibertsitatea berreskuratu eta hobetu.
  - Alor honetan, irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimena sustatu edota indartu.
  - Lehen sektorea mantendu dadila indartu.

14. lerro estrategikoa: Hezkuntzaren sustapena

- Helburu estrategikoa: Ikastetxeekin batera, horien heziketa-lana garatzen lagundu.

Hezkuntza-berrikuntza sustatu, hainbat jarduera eta proiekturen bidez, hezkuntza, kultura, berdintasun, ingurumen-aniztasun edo inklusibitatearen alorretan.

- Helburu zehatzak:

Laguntza eman, hezkuntza arautuaren eremuan Oñatin ari diren irabazi asmorik gabeko ikastetxeek jarduerak eta proiektuak egin ditzaten, hezkuntza, kultura, berdintasun, ingurumen, inklusibitate edo abarreko alorretan.

Oñatiko herritarren musika-prestakuntza sustatu. Dantza sustatu eta gure folklorea mantendu.

Landa-auzoetan bizi diren ikasleen garraio-gastuak diruz laguntzea, hezkuntza-eredua aukeratzeko orduan garraioa ez dadila izan arrazoa.

15. lerro estrategikoa: Haur eta gazteria

- Helburu estrategikoa: Oñatiko haurren aisialdiaren sustapena eta gazteriaren autokudeketaren bultzada.
- Helburu zehatzak:

Haurren topalekuaren proiektua egonkortu

Gaztelekua egonkortu

## 12. *artikulua. Ekintza Planak.*

Lerro estrategiko hauek garatzeko Ekintza Planak dirulaguntzen lerro espezifiko bakoitzari dagozkion deialdi-oinarrien bidez edota lankidetza-hitzarmen berezien bidez egingo dira, betiere Aurrekontuaren Exekuzio Arauan finkatutako irizpideak kontuan hartuta, eta zehazki honako hauek:

a. Dirulaguntzen lerroak praktikan jartzeko mekanismoak: Plan honen Eranskinean jasotakoak.

b. Oinarri arautzaileen oinarritzko lerroak:

Dirulaguntzak eman aurretik, horiek emateko oinarri arautzaileak finkatuko dituzten arauak onartu beharko dira, betiere lege honetan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera bidaliko dira eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Gainera, dirulaguntza emateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

b.1. Administrazio-organo emaileak horretarako eskumena izatea.

b.2. Kreditu egokia eta nahikoa egotea, dirulaguntzaren emakidarengatik etor daitezkeen betebeharrak ekonomiko guztiak asetzeko lain.

b.3. Emakida-prozeduraren tramitazioa horri dagozkion arau aplikagarrien arabera egitea.

b.4. Eduki ekonomikoa duten egintza administratiboen aurretiko fiskalizazioa, betiere legedian aurreikusitakoaren arabera.

b.5. Gastua onartzea, horretarako eskumena duen organoak. b.6. Oinarriek bete egin beharko dituzte dirulaguntzen lerro bakoitzerako Plan honen Eranskinean finkatutako alderdi guztiak.

c. Lanketa-egutegia:

c.1. Deialdi publikoaren bidezko dirulaguntzak.

Indarrean dagoen ekitaldian zehar, urte horretako aurrekontuak onartu ondoren (edo luzatutako aurrekontuaren dotazioen arabera),

c.2. Dirulaguntza izendunak.

Ez dute oinarri arautzailerik behar izango, eta dirulaguntza bakoitzerako sinatutako hitzarmenetan jasotzen diren epeak bete beharko dituzte.

c.3. Zuzeneko dirulaguntzak, interes publikoko arrazoiengatik.

Ez dute oinarri arautzailerik behar izango, eta dirulaguntza bakoitzerako hartutako erabakietan edo sinatutako hitzarmenetan jasotzen diren epeak bete beharko dituzte.

d. Koordinazio-irizpideak.

Dirulaguntzen lerro zehatz batean, administrazio batek baino gehiago ematen badituzte laguntzak, horien oinarri arautzaileetan, hitzarmenetan edo emakiderabakietan jaso egin beharko dira administrazio horien arteko koordinazio- irizpideak.

Dirulaguntza guztien oinarri arautzaileetan nahiz sinatuko diren hitzarmenetan, dagozkion neurriak hartu beharko dira diruz lagundutako jardueretan ez daitezela sortu hizkera-erabilera sexistarik, sexu-diskriminaziorik... Horrez gain, kirolaren eta garapen- lankidetzaren esparruetan antzemango balitz emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera-ezberdintasunaren egoeraren bat dagoela, oinarri arautzaileetan finkatu ahal izango da egoera horiek desagertzeko neurriak baloratu egingo direla.

### **13. artikulua.- Laguntza-lerroak**

Plan honen 4. artikuluan jasotako lerro estrategiko bakoitzari dagozkion laguntza-lerroak plan honen I. eranskinean datoz jasota.

1. lerro estrategikoa: Komunikazio estrategia
2. lerro estrategikoa: Parte-hartzea sustatzea
3. lerro estrategikoa: Garapenerako lankidetzaren estrategia
4. lerro estrategikoa: Gizarte estrategia
5. lerro estrategikoa: Parekidetasun estrategia
6. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena
7. lerro estrategikoa: Kulturaren dinamizazio
8. lerro estrategikoa: Euskararen sustapena
9. lerro estrategikoa: Estrategia instituzionala
10. lerro estrategikoa: Sustapen ekonomiko eta soziala
11. lerro estrategikoa: Turismoaren sustapena
12. lerro estrategikoa: Hirigintza eta zerbitzuen estrategia
13. lerro estrategikoa: Auzoak, Landa-garapena, Ingurumena eta Iraunkortasuna.
14. lerro estrategikoa: Hezkuntzaren sustapena
15. lerro estrategikoa: Haur eta gazteriaren inguruko estrategia

## **OÑATIKO UDALAREN DIRU LAGUNTZEN 2023-2026 PLAN ESTRATEGIKOAREN ERANSKINA**

### **1. lerro estrategikoa: Komunikazio estrategia**

03-PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA ALORREKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA SAILA

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
GOIENA KUOTA ETA BUZONEOA.	Tokiko komunikabideak sustatzea	Tokiko komunikabideen harpidetza handitzea	90.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUKO IV. KAPITULUAREN KONTURA.	IZENDUNA

## 2.lerro estrategikoa: Parte-hartzea sustatzea

03-PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA ALORREKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA SAILA

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
ELTZIA AUZOLANAREKO DIRULAGUNTZAK	Egitasmoa sostengatu eta bizi iraupena posible egiteko, "ELTZIA, herri-sormenaren etxea elkarte soziokulturala" elkarte dirulaguntzea	Elkartegintza indartu eta gizarte harremanak landu eta gizarte kapitala sendotzeko aukerak areagotzea.	6.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUKO IV. KAPITULUAREN KONTURA.	NORGEHIAGOKA
DEBAGOIENA 2030 PROIEKTUA	Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sarea erakunde, eragile eta herritar desberdinez osatutako lankidetzaren sare irekia da, eta Debagoienak dituen askotariko erronka komunitarioei elkarrekin erantzuna emateko helburuarekin sortu da	Debagoiena bailarako herrien arteko kohesioa eta elkarlana hobetzea	20.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUKO IV. KAPITULUAREN KONTURA.	IZENDUNA

## 3.lerro estrategikoa: Garapenerako lankidetzaren estrategia

03-PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA ALORREKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOA SAILA

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
<b>GARAPEN BIDEKO HERRIEI DIRU-LAGUNTZA</b>	Beren helburuen artean garapenerako lankidetzaz xede duten irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoek garapen bideko herrietan burutzen dituzte proiektuak diruz laguntzea	Garapen bidean dauden herrien eta herritarren egoera, ahal den heinean, hobetzea	130.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAKO IV. KAPITULUAREN KONTURA.	NORGEHIAGOK A.

#### 4. Ierro estrategikoa: Gizarte estrategia

05-ONGIZATE ZERBITZUAK ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: ONGIZATE ZERBITZUAK SAILA

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
<b>DIRU-LAGUNTZA BEREZIAK.</b>	Presoen familien joan-etorriak diruz-laguntzea	Joan-etorrien gastuak eramangarriak egitea	3.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/ AKORDIOA
<b>FAMILIEN GUTXIENGO DIRU-SARRERAK.</b>	Gutxiengo beharrak estaltzen ez dituzten familiei diruz laguntzea	Aipatu familien gutxiengo beharrak berratztea	5.200,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/ AKORDIOA
<b>GIZARTE LARRIALDIET ARAKO DIRU-LAGUNTZA</b>	Gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoak aurre egiteko diruz laguntzea	Gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko	200.200,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN eta JAURLARITZAKO EKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA



DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
100. URTE BETETZEAGATIK OMENALDIA.	100 urte edo gehiago dituztenei omendu	100 urte edo gehiago dituztenei errekonozimen dua egitea	850,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA
ELIKAGAI BANKUA PROGRAMA	Janari beharrea daudenei oinarritzko elikagaiak ematea, era sistematizatu batean	Oñatin inor ez egotea oinarritzko elikagairik gabe	1.500,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA
HAINBAT DIRU-LAGUNTZA.	Gizarte Zerbitzuen arloko Elkarteei diruz laguntzea	Gizarte Zerbitzuen arloko elkarteek herri mailan sentsibilizazio ekintzak egin ahal izatea	22.516,55	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA
ADIKZIOEN ERREHABILITAZIOA.	Edozein motatako adikzio egoeran daudenei diruz laguntzea	Adikzio egoera gainditzea errehabilitazio bidez	4.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA
ELKARTEART EKO BATZORDEA.	Elkarte arteko ekintzak diruz laguntzea	Gizarte arloko taldeen koordinazioa handitzea	8.820,85	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	NORGEHIAGOKA
EMAKUMEEN TZAT DIRU-LAGUNTZA BEREZIA.	Edozein egoera medio, beren ohiko bizikidetzaren unitatearen hautsi, baliabide ekonomikorik eduki ez eta euren kargu adingabeak dituzten emakumeei diruz laguntzea	Eguneroko gastu arruntak ordaintzen lagunduz bazterkeria arriskua ekiditea	10.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
GIZARTE ARRISKUKO EGOER.DIRU-LAG.	Gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoetarako aurre egiteko diruz laguntzea	Gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko	30.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA
EZGAITASUN A DUTENEN ENPRESA-GARRAIOAREN DIRULAGUNTZA	Ezgaitasunen bat duten pertsonen enpresara joateko garraioa finantzatzeko	Ezgaitasuna duten pertsonen ez egotea garraioa finantzatzeko ezintasunarekin	18.000,00	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AK ORDIOA
JUBILATU-ETXERAKO DIRULAGUNTZA.	Jubilatu etxeko gastuei aurre egiteko dirulaguntza	Jubilatu etxean egiten diren ekintzen kalitatea bermatu	8.301,98	FINANTZAKETA FUNTS PROPIOEKIN EGINGO DA AURREKONTUAK O IV KAPITULUAREN KONTURA	IZENDUNA

### 5.lerro estrategikoa: Parekidetasun estrategia

05-BERDINTASUN ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: PAREKIDETASUN SAILA

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
